

1- LEHEN PEREDIKÛA

[solista: Petri Carricaburu-Utürbieta]

1. Anderek eta jaunak
hunki jin züer croer
Eskennt dezagün pastorala
Eüska! Herritar güzier.

2. Pastoral honen süjeta
Pierra ÜRRÛTI noblea
Bere denboran izan beitzen
Xiberoko büürüzagia.

3. Altzürüküko ÜRRÛTIAN
gozatu züan hour denbora
Eta Peirat izengaintz
ezagütirik zen bera.

4. Peirat gure Xiberoko
gubernadore kargia
Etexki züan hitan urtez
hil artinokan leküa.

5. Goren-gorenean ützi
dü ÜRRÛTI jauregia
Gaur ere hor tünik dügü
Altzürüküko memoria.

6. Goraipa dezagün orai
trajerü honen harian
Gure Peirat herritara
jarraitiz bere bizian.

2- "ÜRRÛTIAK ANDEREA"

Hitzak: HERRIKOAK
Musika: Niko ETXART

1. Ahetzeko anderea
ÜRRÛTIAN korpitzez

Hor düzü bere büürü
da bihotzez

2. Gure jaun ÜRRÛTIA
Nur dü bere maitea?
Kexüan beti zira
Nahi nüke egia
Erradazü zertako?
Jinkoak nahi badü
Ni ez nüzü kanpoko
Hiltzea ükenen dü.
Hürrünt zite niganik
Ez düt zure beharrik
Bozoazo kanpora
Eni adar biltzera.

3. Jauna holako goizak
Ahetzeko andereak
Ez ditüzü ikasi
Han doazü ihesi

4. Jinkoa zer bizial
Ele horiek ahotik
Oitöitail jaun ÜRRÛTI
Jalkitzen zirelarik
Ni Ahetzeko etxean
ÜRRÛTIAk bilotik
Nündüzün bai bokean
Herresta dü ebili.
Monat jin behar nüzün
Ene sorteo züzün
Biholtz min ükeiteko
Zure kezarazteko.

5. Ogen gabe zü beti
Mintzo zitazil gogorki
Ötai zure begiak
Ütz ditzala kexiak

6. Zareta bat büürüan
Goizean goizak jeirik
Kanporat jalkitzean
Ogi epilok eginik
Musde ÜRRÛTIAk züan
Ahetzeko anderea
Baratü bai bidean
Lehia dün handi.
Nun zabilza hain goizik
Jauregia hüstürük?
Galtarzen deio ÜRRÛTIk
Begiak oldartürük.

7. Jauna ikusiren düzü
Nahi balin badüzü
Nurart orai nabilan
Zareta bat büürüan ?

8. Opilez zarea beitzen
Jende eskeleari
Beterik jende prauben
Emaiteko sokorri
ÜRRÛTIAk zorean
Madama ÜRRÛTIAk
Eskü ezari züan
Hartü züüan bideak.
Opilok ordü hartan
Jin ziren haillikotan
ÜRRÛTIAk berehala
Uste trunpatü zela.

9. Elhilearen etxera
Zoaza bilberaztera
Jauna ikusten düzü
Örai zük badaküzü
Parka izadazüt arren
Bekaitz ez nüzü izanen
Emaize on zirela
Örai badüt nik proba.

3- "BELDÜR GOZO-GAZI"

Hitzak eta Musika: Niko ETXART

1. Mündü barreatü honan
Denak gira bizi
Izidürören menpean
"Lotsa gozo-gazi".
Ta harek mentez mente
Gizona nahasi
Bata bestearen kontre
Beitü altxarazi.

2. Aski da ikustea
Gure hilerrietan
Azken gerla handien
Zarrenda luzeetan.
Han gaziteegi dirade
Üñuan eroririk
Eta ama baten seme
Öil segir güziak.

XEHKEI, PORROKI, ERAUZÜ
MENDEKÜAREN LEGEA,
ÖHITÜZ, BAZTERTÜZ, GOGOTIK KENI
GÜK GERLARAKO HISTERIA.

3. Bokean girelarik
Hürrünago gerla
Pizten da bat batolan
Ikuriz odolü.

Bana berriüz giro sartzen
Errota gütze hartan
Arma berriak prestatzen
Dügügün artean.

4. Behar günikie sinetsi
Bake ütöpan
Bihar ez bada etzi
Jinen da agüan?

Artean malenuki
Denak gira bizi
Izidiraren menpean
"Beldür gazo-gazi".

4- "ARGIZAGIA LEKÜKO"

Hitzak eta musika: Niko ETXART

Hona non niz zure aitzinean
Argizagixuri batean
Ezki mintza nahian.
Gizon eta emazteen artean
Hain misteriotsü denean
Sendimentiak aitortzean.

ARGI ARGITSÜ DISTIRANT
ARGIZAGIA LEKÜKO
DÜGÜLARIK HORI
AMODIOA AITORTZEAN.

Dildirakoz oil ikaran nüzü ni
Zure ahotik entzüean
Maite naüzüla gogotik.
Egia da nik ere aspaldik
Nüla zurekin aiho berbera
Onart ezazü niganik.

Joan gitean goatzan alkarreki
Bizitze berri bafü bürüz
Tink-tinka besarkatürük!!![berriz]

5- "ÜDÄZKENEKO AMODIOA"

Hitzak eta Musika: Niko ETXART

Üdazkeneko ekieren izpiek
Hor oihaneko txoriek
Bazterrak alageratzen.
Egün berri bat da begi bistan sortzen

Ülünetik ateratzen... argian!

Gure bizio asart beazün zühürki
Ahal dügina ederki
Planta dezagün gük orai
Arrestriko aize mehe epel batek
Goxaki lagüntzen hortek... bidean.

1. Gogo-bihotz erditik zohardia
Begi keinüz emaiten mezüa
Beti plazer berarekin sinestzen
Sortü berri den amodioal

2. Arin-arin gogoz eta korpitzez
Irus-irus izate osoa
Ainez-aize gük ohi ez bezala
Iri-iriz izusten geroa.
[Ertieriz]

6- "ÜRRÜTIAKO JAUNA"

[Herrikoa]

1. Musde ÜRRÜTIA leihotik
eta ni aldiz kanpotik
Bihotze erdiratü zereitan oil so ezti batekin
üdüri ziren haren begiak izar zirela zerük.
2. Ene xarmegarría
hülän düzü eliza
Zonbait aldiz jinen zira harat meza entzüera
begioz keinü eginen dügü ezin mintzaten bogüra.

3. Hortzak xuri begiak beltz
ene maitea zeren ez?
Mündü orok diazüze ni nizala traidore
orai arren errodazü hala nizonez bai ala ez.

4. Arrestriko ekia
zereña düzü erdia

Zure eta ene amodioaz plaini düzü mündüa
mündü ororen ixilik maite izan behar ote gira.

5. Españealako bidea
ala bide lüzéal
Gibelitat so egin eta hasperrena ardüra
maitekoz orhit eta nigarra begiala.

6. Amak dio alabari
kanala txarra hil
Hik behar düna ibili aitoren seme horiekin
ibilekoz ibil hadi hihaur üdüri zanbaitekin.

7. Ama zaudé ixilik
ez erran otoi gaizkirik
Gaztetazüna inozent dela ez daküzüa engoitik
zure denboraz orhit eta ez egin otoi nigarrük.
ez egin otoi nigarrük.

7- "BORTÜETAKO ELÜRRA"

Hitzak-ETXAHUN-ürri
Musika:Herrikoa

Bortüetako elürra osoki ori beita urtzen
Primerderako txoriak hasiz geroztik han kantatzen
Denbora ederrez bürüz artzainak gira partitzen
Nor gure ardi saldoekin belar püntorens ontsa txerka-
zen.

Bortüko bidea beita bai segür aski penagarri
Baratz-baratza juraiten gira oil denak kurojez beterik
Zonbait historia kontatuz eriz batak besteari
Xahako bürü gorritik trago zonbait üsü tiratürük.

Tra-fo-la...
Tra-fo-la...

8- "HAGAZE"

[Dantza / kantorea]
Hitzak eta Musika:Niko ETXART

Algor eteküz bata besteari
Ürratsok egiten güñ dantzari
Ützül eta eskünelat,

Bat , bi eta hirü
Ezkerrekat,
Bat , bi eta hirü.

9- "AMA MINTZOA"

Hitzak eta Musika: Niko ETXART

Altzürükütarrek dü elestan
Begiürüren mihü püntan
Ama mintzoa oil ama mintzoa.
Eginorrotako bizitzean
Balgogarrü da orotan
Ama mintzoa oil ama mintzoa.
Xiberatzenek alkarrekin
Lagütin dezagün ber ürartzean
Ama mintzoa oil ama mintzoa.

Hona jadanik urte sobera
Gük errespetürük gabe
Zokoratürük eteki züügü
Etxeetan oharü gabe
Hona jadanik urte sobera
Ahalgeak irabazten
Gük altxa berüz bürüa gora
Zütan beütügi sinesten !!!

[Ama mintzoa, mintzoa...]
[Azkena: Ama mintzoa. Ama mintzoa. Ama mintzoa.]

Gure izate, nortazüna
Unibersala, güziena
Ama mintzoa oil ama mintzoa.
Gaur azkenean ülünetik
Gük salbatüren bai hiltzetik
Ama mintzoa oil ama mintzoa.
Altzürükütarrek dü elestan

